

武士道

(BUSHIDO)

Samuraien

Kodea

Bushido, hitzez hitz "Gudariaren bidea", Japonian garatu zen Heian eta Tokugawa arrotan (IX-XII. mendeetan). Bushido kodea zen samuraien bizitza —Erdi Aroko Europako zaldunen antzeko gudariak— arautzen zuen legea. Samuraiak zeremonia berezi bat jarraitzen zuten beren bizitzako egun bakoitzean, baita gerran ere.

Bushido kodea osatu zuten faktoreak gutxi eta sinpleak dira. Horrela, Bushido kodeak bizimodu bat sortu zuen nazio bat batuta mantentzeko bere garai gatazkatsuenan, gerra zibilen, etsipenaren eta ziurgabetasunaren garaian. Ekialdeko filosofia, erlijioa eta arte martzialekin batera jaiotzen zen Bushido, eta Japonia feudaleko ekialdeko hiru pentsamendu-eskola garrantzitsuenetan ditu iturri nagusiak: Zen Budismoa, Konfuzianismoa eta Sintoismoa. Hiru korrante filosofiko-erlijioso horiek, luzaroan (eta gaur egun ere), konfuzianistetan, budistetan eta sintoistetan banatuko dituzte japoniar biztanleak. Hala ere, K.o. X. mende inguruan, hain desberdinak eta aldi berean hain antzekoak diren hiru pentsamendu horiek mundu-mailako filosofiaren historian aurrekaririk ez duen zerbait egin zuten: bat egin zuten kode etiko-moral-militar bakarra sortzeko, bere kontzepzioari eta mezuari dagokienez; kode horrek leialtasuna, auto-sakrifizioa, justizia, lotsaren zentzua, hezkuntza, izpirituaren garbitasuna, apaltasuna, umiltasuna, izpiritu martziala, ohorea eta maitasuna azpimarratzen baititu.

Budismotik arriskuarekiko eta heriotzarekiko lotura hartu zuen Bushidok. Samuraiak ez dio heriotzari beldur; izan ere, Budismoak irakasten duenez, hil ondoren berriro gorpuztuko direla eta lurlean beste bizitza bat biziko dutela sinesten dute. Samuraiak gudariak dira samurai bihurtzen direnetik hil arte, ez diote beldurrik arriskuari.

Gainera, budismoaren Zen eskolaren bidez, behin betiko "absolutua" lor daiteke. Zen meditazioak irakasten du nola kontzentratu eta nola lortu hitzekin azaldu ezin den pentsamendu-maila. Norberak bere burua ezagutzeko eta ez mugatzeko modua erakusten du Zenak. Hori tresna gisa erabiltzen du samuraiak beldurra, segurtasunik eza eta, azkenik, akatsak uxatzeko. Ahultasun horiek heriotza eragin baitiezaiokete. Beste doktrina japoniar batek, Sintoismoak, leialtasuna eta patriotismoa eman dizkio Bushidori.

Sintoismoak arbasoak gurtzea barne hartzen du, eta horrek Familia inperiala nazioaren iturri bihurtzen du. Hori dela eta, Enperadorearekiko begirunea ia jainkozko zerbait da. Bera da Zeruaren irudikapena Lurrean. Halako leialtasuna erakutsiz, samuraiak enperadorearekiko konpromisoa hartzen du, bai eta maila handiagoko samuraia den Daimyo edo jaun feudalekiko ere. Sintoismoak, halaber, patriotismoaren bizkarrezurra eta bere herrialdearekiko, Japoniarekiko, errespetua ekartzen dizkio. Sinesten dute Lurra ez dagoela beren premia mundutarrak asetzeko, baizik eta jainkoen eta arbasoen izpirituen egoitza sakratua dela. Konbentzimendu horren ondorioz, Lurra errespetatu, zaindu, babestu, elikatu eta maitatu egiten dute, beraiena ez den zerbait miragarria erabiltzen ari baitira.

Sintoismoa da, gaur egun, Japoniako erlijio nagusia. Mendebaldekoentzat japoniarren alderdi harrigarrietako bat da, batik bat, hilenganako begirunea eta haiekiko errespetua. Are gehiago, Japonian ez dute mamuetan sinesten; konbentziturik daude bi munduen artean harrapatutako pertsona doilorren izaki gaiztoak direla.

Gizakien munduarekiko, ingurunearekiko eta familiarekiko harremani dagozkien sinesmenak dira Konfuzianismoaren ekarpena. Konfuzianismoak garrantzia ematen die honako 5 harreman moral hauei: maisu eta zerbitzariaren artekoa, guraso eta seme-alabaren artekoa, senar eta emaztearen artekoa, anai-arreba nagusi eta gaztearen artekoa, eta lagunaren artekoa. Besteekiko harreman horiek lortu nahi ditu samuraiak. Hala ere, samuraia ez dago ados Konfuzioren idazki askorekin. Samuraiak sinesten du gizakiak ez duela egun osoa eserita liburuak irakurtzen pasatu behar eta ez lukeela egun osoa poesiak idazten egon behar: intelektual espezialista makinatzat hartzen zen. Horren ordez, Bushidok sinesten du gizakia eta unibertsoa antzekoak izateko sortu zirela, izpirituan nahiz jarreran. Samuraia, beraz, ekintza-pertsona gogoetatsua da.

Bertute horiekin batera, Bushidok erabat errespetatzen ditu justizia, onginahia, maitasuna, zintzotasuna, zuzentasuna eta autokontrola. Justizia da samuraiaren kodearen faktore nagusietako bat: bide okerrak eta ekintza bidegabeak laidogarritzat eta ankertzat jotzen dira. Maitasuna eta ontasuna printze batek izateko moduko bertute eta egintzak ziren; samurai batentzat ez zegoen loria handiagorik besteei lagundu ahal izatea baino. Zintzotasuna eta zuzentasuna beren bizitzak adina baloratzen zituzten. Bushi no ichi-gon edo "Samurai baten hitza" konfiantzazko eta erabateko fedezko itun hutsetik harago doa. Samurai batek bere hitza ematen zuenean bere bizitza propioa zen berme gisa jartzen zuena, eta horregatik ez zen inoiz idatziz jaso samurai baten itun, zeregin edo misiorik. Samuraiak erabateko autokontrola eta estoizismoa ere behar zituen guztiz zintzoa izateko. Ez zuten jendaurrean min- edo alaitasun-zantzurik erakutsi behar. Dena barrutik jasaten du, debekatuta baitu intziri eta negar egitea. Beti erakusten zuen portaera lasaia, bai eta inolako grinarik jarri behar ez izateko moduko neurritasun mental bat ere. Hain heziketa gogorra beharrezkoa zen gudari oso eta benetakoa izateko, eta samuraiek hura onartzen zuten.

Samuraiek nahiago zuten bakarka eta gorputzez gorputz borrokatzea. Arku bakar-bakarrak borroka masiboetan erabiltzen zuten, eta inoiz ez gogo onez, gudari batek urrutiko armak erabiltzea zitalkeriatzat baitzuten. Borroka-filosofia berezi hori dela-eta, jendeak samuraiak ninjen antitesi gisa ikusten zituen. Borroka batean, samurai batek bere familiaren izenari, mailari eta balentriei "hel egingo" zien. Orduan, maila berdintsuko aurkari bat bilatu eta borrokan egingo zuten. Mendebaldarrok izutu ohi gaituen samuraien jokabideetako bat hau da: samurai batek aurkariari, borrokan garaitzen zuenean, burua moztzen zion; horrela, borrokaren ondoren, garaitutako aurkarien buruekin itzuli eta garaipena egiaztatu ahal izateko.

Samuraiak garaitutako jeneralen eta goi-mailakoen buruak hiriburura eramane eta ospakizunetan eta antzekoetan erakusten zituen, gudari garailearen loriarako. Baina, dudarik gabe, gudari-mota honen ezaugarrien artean, mendebaldarroi zirrara handiena sortzen diguna hiltzeko zuten prestutasuna da. Horrela bada, borrokan garaitua eta oraindik bizirik ateratzen zen samuraiaren irtenbide bakarra erritu-suizidioa zen: seppuku edo harakiria.

Seppukua –"erraiak ateratzea" esan nahi du– erritu sakratua da; erritu horren bidez, pertsona batek bere bizitza ematen du bizian galdutako ohorea berreskuratzearen truke. Erritu horrek bi fase ditu: lehenengoa ebakia bera da, ebaki sakona, sabelean ezkerretik eskuinera eta ibilbidea pixka bat jaitsiz egin beharrekoa, ohorea lehengoratu nahi duen pertsonaren armarekin eta pertsona horrek berak egindakoa. Odol-galtzeak eragiten dio heriotza. Helburua da seppukua egiten duen pertsona hiltzea, eta horrez gain, bere erraiak erakusgai uztea; hortik datorkio izena. Bigarren fasea gorpu bizigabeari burua moztea da, eta hori seppukua egitea erabaki duenaren pertsona maite batek egin behar du. Samuraien kasuan, burua moztzen zuena beste lagun samurai bat izaten zen.

Bere buruaz beste egiteko modu hori arerioak samuraia harrapatzeko eta galdekatzeko puntuan zegoenean ere egiten zen, borrokarik galdu ez arren. Samuraiak ere seppukua erabiltzen zuten beren hurkoentzat (batez ere beren nagusientzat) eredu izateko; hau da, samurai batek bere Daimyoren agindu bat jasotzen bazuen eta harekin ados ez bazegoen, ezin zion hura betetzeari uko egin, baina, seppukuaren bidez, bere burua hilez, Daimyori ohartaraz ziezaiokeen bere jarreraren okerraz: gogorra izan behar du jeneral batentzat ikustea bere gudariak nahiago dutela hil bere aginduak bete baino. Ez da harrizkoa; izan ere, samurai batek nahiago zuen bere burua hil bere familiaren izenari eta bere jaunari desohorea eta zorigaitza ekarri baino. Benetako ohorezko egintzat jotzen zen hori. Eta, horrela, jokabide-kode hain gogor eta hain koherentearekin, beren osperik handiena lortu zuten samuraiak K.o. 1400 eta 1500 urteetan.

1600. urtearen inguruan, bat egin zuten azkenik Japoniako feudoek, eta, horrela, eguzkia sortzen den herrialdera iritsi zen bakea; guduak amaitu ziren azkenean. Orduan, Tokugawa aroaren amaiera aurreratua zegoenean, K.o. 1700 eta 1800 urte bitartean, Japonia munduko gainerako herrialdeetara irekitzen hasi zen, eta bizitza modernizatuago eta "mendebaldekoago" batera jo zuen; samuraiak jada lekurik ez zuten mundu batera – ordurako justizia-egile nomadak baino ezer gutxi gehiago ziren. Samuraiak eta beren bizimodua ofizialki abolitu ziren 1870eko lehen urteetan. Ez zen lekurik ohorezko gizakientzat, gudariarentzat, samuraiarentzat.

# *Bushido kodea*

## Zazpi printzipioak.

Hauek dira Bushido kodea, samurai gehienek gida moralak, arautzen duten zazpi printzipioak.

*"Izan zakizkiote leialak eta zuen ohorea handituko da. Hautsi ezazue, eta hurrengo belaunaldiek zuen izena laidoztatuko dute".*

### **1. GI (Zintzotasuna/Justizia)**

Izan zintzoa mundu osoarekin dituzun tratuetan. Sinetsi justizian, baina ez besteengandik datorrenean, baikik eta zurean. Benetako samurai batentzat ez dago gris-tonurik zintzotasunari eta justiziar dagokienean. Zuzena eta okerra, besterik ez dago.

### **2. YU (Balio heroikoa)**

Altxatu zure burua ekiteko beldur direnen gainetik. Norbere oskolean ezkutatzea, dortokek bezala, ez da bizitzea. Samurai batek balio heroikoa izan behar du. Arrisku handia du, arriskutsua da, baina, zalantzarik gabe, bizitza bete-betean, osotasunez eta modu zoragarrian bizitzea ere bada. Adore heroikoa ez da itsua. Adimentsua eta sendoa da. Beldurraren orde, errespetua eta arreta dakartza berekin.

### **3. JIN (Errukia)**

Entrenamendu bizi baten bidez samuraia azkar eta indartsu bihurtzen da. Ez da gainerako gizakiak bezalako, guztion onerako bakarrik erabili behar den botere handia garatzen baitu. Samuraiak errukia izan behar du. Samuraiak edozein aukeratan lagundu behar die bere anai-arrebei. Aukera ez bada sortzen, bidetik aterako da hura aurkitzeko.

### **4. REI (Kortesia)**

Borrokalari bat izateak ez du ankerkeria justifikatzen. Samuraiek ez dute ankerrak izateko arrazoirik; ez diote inori beren indarra erakutsi behar, beren buruei soilik. Samurai batek adeitsua izan behar du beti, batez ere etsaiekiko. Aurkarienganako begirune zuzenik gabe, samuraia ez da animaliak baino hobea. Samuraiari beldurra diote guduaren basatia delako, baina besteak tratatzeko duen moduagatik errespetua diote. Samuraiaren benetako barne-indarra begi-bistako bihurtzen da estualdietan.

## **5. MEYO (Ohorea)**

Benetako samuraiak bere ohorearen epaile bakarra du, bere burua, alegia. Hartzen dituen erabakiak eta erabaki horiek nola gauzatzen dituen dira egiaz nor den erakusten dutenak. Inor ezin da bere buruarengandik ezkutatu, eta samuraiak ez dira salbuespen bat.

## **6. MAKOTO (Erabateko zintzotasuna)**

Samurai batek zerbait egingo duela esaten duenean, dagoeneko eginda egongo balitz bezala da. Mundu honetan ez dago ezer, agindu duen hori egitea eragotziko dionik. Ez du hitza eman behar. Ez du promes egin behar. Hitz-egite hutsak abian jarri du egiteko egintza. "Hitz egitea" eta "egitea" samurai batentzat ekintza bera dira.

## **7. CHUGO (Betebeharra eta leialtasuna)**

Samuraiaren kasuan, "zerbait" egin edo esan izanak esan nahi du "zerbait" hori berari dagokiola. Zerbait horren erantzulea da, bai eta horren ondorio guztiena ere. Samuraia oso leiala da bere zaintzapean daudenekiko. Bere ardurapean daudenekiko leialtasun basatia du. Samurai baten hitzak bere arrastoa bezalakoak dira: bera doan lekuetan barrena jarrai ditzakezu, eta horregatik samuraiak kontu izan behar du hartzen duen bidearekin.